



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

## 194. INFORMAZIO BULETINA

2024ko otsaila



Europar Batasunak  
kofinantzatua

Cofinanciado por  
la Union Europea



2024ko otsaila

## ALBISTEAK

### Next Generation funtsekin finantzatutako diru-laguntzak.

**Gipuzkoako toki-erakundeen inbertsio-jarduketei buruzko zenbait ebazpen.**

Jarraian, Gipuzkoako toki-erakundeen inbertsio-jarduketei buruzko zenbait ebazpen jasotzen dira, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren 14. osagaiaren (1. inbertsioa) esparruan (turismo-eredua jasangarritasunerantz eraldatzea). Horietan, mugarrien eta helburuen aldaketak sartzen dira:

- **2021eko ekitaldiko kredituekin finantzatutako jarduerak.**
- **2022ko ekitaldiko kredituekin finantzatutako jarduerak.**
- **2023ko ekitaldiko kredituekin finantzatutako jarduerak.**

### Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren hurrengo deialdien egutegia.

**Deialdiak enpresentzat (bereziki ETEentzat), unibertsitateentzat, teknologia- eta ikerketa-zentroentzat, pertsona fisikoentzat edo toki-erakundeentzat dira.**

2024ko lehen seihilekorako aurreikusitako deialdien artean, Industria Deskarbonizazioko eta Ekonomia Zirkularreko PERTEetara bideratutako finantzaketa-lerroak nabarmentzen dira bereziki.

Informazio gehiago: [\*\*Deialdiak\*\*](#) orrirako lotura gaztelaniaz.

### Eskualde Garapeneko Europako Funtzen (EGEF) urteko topaketak egin dira.

**Europako Batzordeko eta Espainiako EGEFen kudeaketaren arduradunek urteroko topaketa egin dute, 2014-2020 epealdiko programen bilakaera eta amaiera baloratzeko, eta 2021-2027ko programen abian jartzea baloratzeko.**

Urteko topaketak 2024ko otsailaren 5ean eta 6an izan dira, Ogasuneko Ministerioaren Madrilgo egoitzan. Bertan hartu dute parte arlo horretan eskumena duten Europako Batzordeko ordezkariak, Ministeriokoek, autonomia erkidegoetakoek eta inplikaturako gainerako erakundeetakoek: bitarteko erakunde edo programetako Agintaritza gisa jarduten dutenak, bai Estatuko Administrazio Orokorrekoak eta bai autonomietakoak.

Topaketetan, EGEFen kudeaketarekin lotutako hainbat eremu jorratu dira, besteak beste, kohesioaren eta Europako politikaren eraginkortasunaren erronkak, Kohesio Politikaren arrakastarako erronkak eta horiek emaitzetara bideratzea, edo ezagutzak transferitzea eta I+G+Bko lankidetzak publiko-pribatua, ikuspegi nazional eta erregional batetik, eta EGEFen finantzaketaren zeregina.



### 2024ko otsaila

Hilaren 5eko saioan, lehen aldiz, inaugurazio-bloke bat sartu zen, proiektuak eta onuradunen testigantzak aurkezteko. Jardunaldiak, halaber, 2 eztabaida-saio paralelo izan zituen, gai espezifikoari buruzkoak, bata administrazio-gaitasuna indartzeari buruzkoa eta bestea EGEFek estalitako arloetako politika publikoen ebaluazioari buruzkoa.

Hilaren 6ko saioan, 2021-2027 programak abian jartzeko aurrerapenak aztertu ziren, bai eta 2014-2020 aldia ixteko aurreikuspenak ere. Era berean, Kostu Sinplifikatuen Aukerei eta Trantsizio Justuaren Funtzari eskainitako bloke monografikoak egon ziren.

## **Plus Europako Gizarte Funtzak (EGIF+) 2021-2027 programazio-aldian diruz lagundu ditzakeen gastuei buruzko arauak.**

**2021eko urtarrilaren 1etik aurrera egindako eta benetan ordaindutako gastuei aplikatuko zaizkie.**

Eskualde Garapeneko Europako Funtzari, Plus Europako Gizarte Funtzari, Kohesio Funtzari, Trantsizio Justurako Funtzari eta Europako Itsas, Arrantza eta Akuikultura Funtzari buruzko xedapen komunak ezartzen dituen 2021/1060 EBko Erregelamenduaren 63.1 artikulua ezartzen duenez, arau nazionaltan oinarrituta zehaztuko da diruz laguntzeko modukoa den gastua, salbu eta erregelamendu horretan edo funts bakoitzaren erregelamendu espezifikoetan, edo horietan oinarrituta, arau espezifikoak ezartzen badira.

Agindu hori betetzeko, otsailaren 13ko Estatuko Aldizkari Ofizialean (38. zk.) argitaratu da otsailaren 8ko TES 106/2024 Agindua, 2021-2027 programazio aldiari Plus Europako Gizarte Funtzak diruz lagundu ditzakeen gastuak zehazten dituena. Era berean, aginduak gastu jakin batzuek bete behar dituzten irizpide espezifikoak jasotzen ditu EGIF+ kontura kofinantzatu ahal izateko.

Informazio gehiago: [TES/106/2024 Agindua](#) (gaztelaniaz).

## **Europako Egitura eta Inbertsio Funtzen gauzatzeari buruzko 2023ko laburpen-txostena.**

**Europako Batzordeak urtarrilaren 15ean argitaratu zuen Europako Egitura eta Inbertsio Funtzen (EEIF) gauzatzeari buruzko 2023ko laburpen-txostena, 2014-2020 aldiari EEI funtsen finantza-gauzatzearen bilakaera aurkezten duena, 2022aren amaierara arte.**

**Txostenak** 2014-2020 epealdirako programen bidez eskura dauden laguntzen aukera zabala erakusten du, baita EEIFen gunea osatzen duten eskualdeetan, enpresetan eta, batez ere, pertsonetan duten eragin zuzena eta positiboa ere. Halaber, markoaren malgutasuna eta moldagarritasuna erakusten du, COVID-19aren pandemiaren, Errusiak Ukrainaren aurka daraman eraso gerraren eta horren ondoriozko krisi energetikoaren ondorioei irtenbideak eskaintzeko.

Informazio gehiago: [Europako Batzordearen web orria](#) (gaztelaniaz).



2024ko otsaila

## Lezo-Donibane bizikletentzako eta oinezkoentzako bidearen tartea eraikitzeako obrak esleitu dira.

**Proiektu hau Euskadiko 2021-2027 EGEF Programak kofinantzatuko ahal izango du.**

Obrak 1,5 milioi euroan esleitu dira guztira, eta obrak gauzatzeko epea 6 hilabetekoa izango da.

Obren helburu nagusia Lezo eta Pasai-Donibane udalerrien artean dagoen bidegorria Jaizkibelerako igoseraren hasierako bidegurutzearen inguruetaraino luzatzea da.

Obrek nagusiki plataforma handituko dute bidegorri bat sartu ahal izateko. Hormigoizko kontrapisuak behar dituzten hegalen bidez lortzen da hori.

Proiektu hau Euskadiko EGEF 2021-2027 Programak kofinantzatuko ahal izango du, 2.8 helburu espezifikorekin: "hiri mugikortasun multimodal eta jasangarria sustatzea, karbonoaren zero isuri netoko ekonomiara doan trantsizioaren barruan".

Informazio gehiago: [\*\*Kontratazio Plataforma\*\*](#).

## Gipuzkoako Foru Aldundiaren parte-hartzea Euskadiko Europako Gizarte Funtzaren (EGIF) 2014-2020 epealdiko Programa Operatiboan.

**2014-2020 epealdian, Gipuzkoako Foru Aldundiak 1.123.428,95 €-ko gastua ziurtatu du, eta honek EGIFetik 1.054.817,29 €-ko kofinantzazioa ekarri du.**

Europako Gizarte Funtza (EGIF) langabezia-tasak murriztera, bereziki langabeziak gehien kaltetu dituen taldeenak, eta genero-hesiak murriztera zuzenduta dago. Enpresa-espirtua, ekintzailatza eta enpresen sorkuntza bultzatzea ere helburuak ditu, baita langileen eta enpresen egokitze-gaitasuna hobetzea, hezkuntza- eta prestakuntza-sistemak lan-merkatuaren premietara egokitzea. Gainera, gizarteratze aktiboa sustatu nahi du.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, aipatutako epealdian, "Enpleguaren iraunkortasuna eta kalitatea sustatzea eta laneko mugikortasuna bultzatzea" programaren 1. ardatzean parte hartu du, 8.3 inbertsio-lehentasunean barruan "norberaren konturako lana, enpresa-espirtua eta enpresen sorrera sustatzea".

Zehazki, kofinantzatutako ekimena, Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak kudeatua, "AUTOENPLEGUA SUSTATZEN" izan da. Horren helburua laguntza pertsonalizatua ematea da, enpresa-proiektuak eta enpresak sortzekoak garatzeko prozesuetan. Bi dinamikaren bidez garatu da:

- **Txekin:** Enpresak sortzeko prozesuetan, enpresa-proiektuetan lagundu.
- **Emekin:** Emakumeek sustatutako enpresen sortze-prozesuei laguntza eman eta sustatu.






2024ko otsaila

## EUROPAKO DEIALDIAK

### **NEXT GENERATION FUNTSEKIN FINANTZATUTAKOAK**

*2023ko aurrekontu-ekitaldirako kredituak eguneratu direla jakinarazten da, bai eta urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuan jasotako bizitegi-eraikinak eta etxebizitzak birgaitzeko programetarako laguntzen deialdi publikoa finantzatzeko kreditua agortu dela ere. Errege-dekretu horren bidez, Europar Batasunak finantzatutako Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko (Next Generation EU) bizitegi-birgaitzearen eta etxebizitza sozialaren arloko 3, 4 eta 5 programak arautzen dira.*

*Landa Erronka Digitala programaren 2023ko dirulaguntzetarako deialdia egin da, gaikuntza digitaleko proiektuetarako, Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan. Eskabideak aurkezteko epea 2024ko apirilaren 16an amaituko da.*





2024ko otsaila

## BESTE DEIALDIAK

**CEF.** Europa Konektatzen. 5G eta sare digitalen banaketa. Azterlanak eta obrak.

- **CEF-DIG-2023-**
  - -5GCORRIDORS-STUDIES. 5G teknologiaren estaldura garraio-ibilbideetan. Azterlanak.
  - -5GSMARTCOM-EDGE-WORKS. Komunitate adimendunentzako (Smart) 5G teknologien eta Edge Cloud-en inguruko lanak, azken erabilerako muturretik (hurbilen dauden lurralde-guneetan datuak banatzeko ereduarekin (Edge).
  - -GATEWAYS-STUDIES eta -WORKS. Sarbide digital globalen (gateway) enborreko konektibitatea, hala nola itsaspeko kableak. Azterlanak eta obrak.

**Erasmus Mundus.** Graduondoko bateratuak diseinatzeko neurriak (EMJM, Joint Masters).

- **ERASMUS-EDU-2024-EMJM-DESIGN.**

**EUBA.** EBko Organo eta Agentzien Programa. EFSA. Elikagaien Segurtasunerako Europako Agintaritza. Arrisku biologikoen, animalien osasunaren eta ongizatearen BIOHAW unitatea. Hegazti-gripe oso patogenoaren zaintza aktiboa basa-hegaztietan. Hastapeneko ahalmen-sorkuntzarako laguntzak.

- **EUBA-EFSA-2023-BIOHAW-06-**
  - -Lot-2. Itsaso Baltikoa. Hegoaldea.
  - -Lot-3. Itsaso Beltza. Mendebaldea.
  - -Lot-5. Frisiako Itsasoko eskualdea.
  - -Lot-7. Venetoko eskualdea.
  - -Lot-9. Cádizko golkoa.

**Kanpo Ekintza.** Europe Aid laguntzak.

- **Europe Aid laguntzak.**
  - Yemen eta klima-aldaketari eta gazteriari buruzko gizarte zibileko erakundeen arteko lankidetzak. EuropeAid/179238/DD/ACT/YE.
  - Colombia. Gizarte Zibileko Erakundeen eta Giza Eskubideen eta Demokraziaren Gaikako Programetarako proposamenen baterako deialdia. EuropeAid/179887/DD/ACT/CO.
  - Maroko. Baso Agentziaren gaitasunak indartzea. EuropeAid/179978/ID/ACT/MA.

**SMP-COSME-2023-TOURSME-01.** ETE turistikoen trantsizioa eta ahalduntzea ekosistema iraunkorrago eta erresilienteago baterantz. Merkatu Bakarraren Programa (SMP). Enpresa txiki eta ertainen lehiakortasuna (COSME).

- **SMP-COSME-2023-TOURSME-01.**



### 2024ko otsaila

**ERC-2024-PERA.** Inplikazio publikoaren PERA saria. Europako Ikerketa Kontseilua. Berrikuntzako Horizon Esparrua.

- ***ERC-2024-PERA.***

**UASEEDS.** "Ausardia-haziak". Enpresa aholkularitzako zerbitzuak Ukrainako enpresa teknologiko berrientzat. Europako Berrikuntza Kontseilua. Horizon berrikuntza esparrua. HORIZON-EIC-2022-UKRAINIANTECH-01-01.

- ***Seedsofbravery.eu.***

**EITUM BP 23-25.** ETEen merkatuak hedatzea eta berrikuntza fokalizatuko proiektuak. Europako Teknologia Institutuaren (EIT) hiri-mugikortasunaren atala (UM). HORIZON-EIT-2023-25-KIC-EITURBANMOBILITY. Horizon berrikuntza-esparrua.

- Institutuaren eta bere KICen (Ezagutza eta Berrikuntza Komunitateak) EITUM BP 23-25 jarduera-plana.
- ***ETEn merkatuen hedapena.***
- ***Berrikuntza fokalizatuko proiektuak.***

**P2R.** Erresilientziara bidean. Eskualde eta komunitateentzako laguntza. Klimaren aldeko misioa Horizon berrikuntza-esparruan. HORIZON-MISS-2021-CLIMA-02-02.

- ***HORIZON-MISS-2021-CLIMA-02-02. P2R .***

**STAGE.** Berrikuntza iraunkorreko plataforma digitala. Finantza-dirulaguntzak. 4. Klusterra, digitalizazioa, industria eta espaziozkoa, eta bere erresilientzia-helburua, Horizon Berrikuntza Esparruan.

- ***HORIZON-CL4-2021-RESILIENCE-01-29.*** STAGE plataforma edo ekosistema digitala, iraunkortasunera bideratutako berrikuntzarako finantzaketa-baliabideen eta -iturrien sare batera iristeko. Europako erresilientzia-erronketarako atala, 4. klusterra.

**HORIZON-CL6-2024-BIODIV-.** Bioaniztasunaren atala Elikadura, Bioekonomia, Baliabide Naturalak eta Nekazaritzako 6. klusterrean, Horizon berrikuntza esparruan.

- ***HORIZON-CL6-2024-BIODIV-.*** Azpiatal generikoa (1) eta etapa bikoitzekoa (2, two stage).
  - -01-1. Espezie exotiko inbaditzaileak.
  - -01-2. Biodibertsitate-proiektuetarako digitalizazioa.
  - -01-4. Biodibertsitatea, ekonomia eta finantzak: biodibertsitatearen galerarekin lotutako arrisku makrofinantzarioak ulertzea.
  - -01-5. Politikak, gobernantza eta digitalizazioa konbinatzeko ekintza eraldatzailea, biodibertsitatearen galerari heltzeko.
  - -01-6. Polinizatzaileekiko nekazaritza-sistema lagunkoiak sustatzea.
  - -01-7. Paisaia-elementuak nekazaritza-eremu intentsiboetan berriro sartzea.



### 2024ko otsaila

- -01-8. Karbonoan eta biodibertsitatean aberatsak diren baso-ekosistemak kontserbatzea eta babestea.
- -01-9. Hazkuntza selektiboko programa akuikultura organikorako.
- -02-1-two-stage. Naturan oinarritutako konponbideen proiektu pilotuak, klima aldakorrean ur-baliabideak modu iraunkorrean kudeatzeko, arreta berezia jarriz muturreko lehorteetan inpaktuak murrizteari.
- -02-2-two-stage. Naturan eta Europako Bauhaus Berrian (EBren zeharkako sorkuntza-ekimena) oinarritutako konponbideek bizi-espazio eta komunitate jasangarri, inklusibo eta erresilienteetan laguntzeko duten ahalmenaren proiektu pilotuak.
- -02-3-two-stage. Labore txikien sustapena nekazaritza-sistemetan.

**CircBio.** Horizon berrikuntza esparruko 6. klusterraren bioekonomia zirkularraren atala (elikadura, bioekonomia, baliabide naturalak eta nekazaritza). HORIZON-CL6-2024-CircBio-01, -02.

- **HORIZON-CL6-2024-CircBio-01, -02.** Azpiatal generikoa (1) eta etapa bikoitzekoa (2, two stage).
  - -01-1. CCRI-PDA. Hiri eta Eskualde Zirkularren Ekimeneko Proiektuak Garatzeko toki-erakundeei laguntza ematea.
  - -01-5. Jatorri biologikoko materialen eta produktuen biodegradazio programatuaren ahalmena baliozkotzea ingurune espezifikoetan.
  - -01-6. Jatorri biologikoko produktueterako informazio digitaleko sistemak.
  - -01-7. Berotegi-efektuko gasen ekonomia intentsibo izatetik bioekonomia zirkularraren ereduazko eskualdeetarantzko trantsizio bidezkoa eta berdintzailea egiteko proiektu pilotuak.
  - -01-9. Bioekonomia zirkularra duten "startupak" edo herrixka edo urbanizazio berriak.
  - -01-10. Uretako extremofiloak jorratzea entzima, farmako, metabolito eta produktu kimiko berriak lortzeko.
  - -02-1-two-stage: Ehungintzako balio-kateetarako soluzio zirkularrak, sailkapena, birziklapena eta ekodiseinu birziklagarria berrituz.
  - -02-2-two-stage: Plastikoen balio-kateen zirkulartasuna handitzea.
  - -02-3-two-stage: Zirkulartasuna handitzea elektronikaren balio-kateetan.
  - -02-4-two-stage: Irtenbide zirkular berriak eta ikuspegi deszentralizatuak ura eta hondakin-urak kudeatzeko.
  - -02-6-two-stage: Siloetatik aniztasunera: oinarri biologikoa eskala txikian erakusteko pilotuak.

**HORIZON-CL6-2024-CLIMATE-01-.** Klimari buruzko atala Horizon berrikuntza-esparruko 6. klusterrean (elikadura, bioekonomia, baliabide naturalak eta nekazaritza).

- **HORIZON-CL6-2024-CLIMATE-01-.**
  - -1. Nekazaritzan ureztatze praktika eta teknologia hobetzea.
  - -2. Paludikultura edo hezeguneen kudeaketa. Alderdi sozioekonomikoak, klimatikoak eta ingurumenekoak.
  - -3. Paludikultura: erakustaldiak (proiektu pilotuak) eskala handian.





### 2024ko otsaila

- -4. Lurzoruaren erabilera-aldaketak tokiko/eskualdeko klimari dagokionez.
- -5. Egurraren erabilera klimatikoa eraikuntzaren sektorean, Europako Bauhaus Berria bultzatzeko, sormenaren eta iraunkortasunaren zeharkako ekimena.
- -6. Eskualdeko inpaktu eta berrelikadura klimatikoen eredu ozeanikoak, urte-sasoitik hamar urterainoko epera.
- -7. EB-Txina nazioarteko lankidetzak, klimari eta biodibertsitateari buruzko ikuspegi integratuaren jarraipena hobetzeko, ingurumenaren eta Lurraren behaketa erabilita.

**HORIZON-CL6-2024- COMMUNITIES -01-, -02.** Komunitateei buruzko atala, 6. klusterrean (elikadura, bioekonomia, baliabide naturalak eta nekazaritza) Horizon berrikuntza esparruan.

- **HORIZON-CL6-2024- COMMUNITIES -01-** Azpiatal generikoa (1) eta etapa bikoitzekoa (2, two stage).
  - -01-1. Europako Bauhaus Berriak, sormenaren eta iraunkortasunaren zeharkako ekimenak, hiriko elikadura-sistema eraldatzeko duen ahalmena askatzea.
  - -01-2. Landa-bizitzaren eta -enpleguaren pertzepzio sozialei eta onurei buruzko azterlanak, COVID-19a aldaketa iraunkor gisa mugatzeari buruzkoak.
  - -01-3. Artikoko kostaldeko, tokiko eta indigenen komunitateen parte-hartzea eta ahalduntzea ingurumen-erabakiak hartzerakoan.
  - -02-1-two-stage. Berrikuntza klimaren aldetik neutroak izan ahal diren landa-komunitateentzat hemendik 2050era.
  - -02-2-two-stage: Negozio- eta ekoizpen-eredu jasangarri berriak nekazarientzat eta landa-komunitateentzat.

**HORIZON-CL6-2024- FARM2FORK-01-, -02.** "Baserritik Mahaira" estrategiari buruzko atala, Horizon berrikuntza esparruko 6. klusterrarena (elikadura, bioekonomia, baliabide naturalak eta nekazaritza).

- **HORIZON-CL6-2024- FARM2FORK -01-** Azpiatal generikoa (1) eta etapa bikoitzekoa (2, two stage).
  - -1. Aire zabaleko nekazaritza- eta abeltzaintza-sistemak eta basa-bizitzaren kudeaketa.
  - -2. Elikadura-produktu eta -prozesu berri osasungarri eta iraunkorrak.
  - -3. Elikadura-iruzurraren aurka borrokatzeko sare tematikoa, ikerketa eta berrikuntza praktikara eramanez.
  - -4. Klima-aldaketa eta elikagaien segurtasuna: klima-aldaketaren ondorioak elikadura-sistema guztien kaltegabatasunean.
  - -6. Herritarren zientzia elikadura-sistema iraunkorretarako trantsizioa sustatzeko aukera gisa.
  - -7. Proteina-iturri alternatiboetan oinarritutako elikagai berrien garapenaren inpaktuak.
  - -8. Elikagaiak alferrik galtzea eta ingurumen-inpaktuak aurreikustea eta murriztea, 2030erako klima-helburuak lortzen lagunduz.
  - -9. Mikrobioma zaporerako eta testurarako aldaketa dietetiko organoleptikoan.
  - -11. EB- Afrikar Batasuna: bidezko merkataritzako elikadura-sistemearantz, sozialki justuak eta klimari dagokionez neutroak.



### 2024ko otsaila

- -02-1-two-stage. Nekazaritza organikoan eztabaidagarriak ez diren sargaien erabilgarritasuna eta erabilera handitzea.
- -02-2-two-stage. Elikagai organiko jasangarrietako berrikuntza-laboretegiak: balio-kate osoa indartzea.
- -02-3-two-stage: Landare-osasunerako EBko inportazio-kontrolen eraginkortasuna handitzeko tresnak.
- -02-4-two-stage: Landareetako izurriteen agerraldien aurkako borroka.
- -02-5-two-stage: Animalien nutrizio-beharrak eta pentsuen nutrizio-balioa, ekoizpena kudeatzeko baldintza desberdinetan.
- -02-6-two-stage: Klima-inpaktua minimizatzea arrantzan: arintze- eta egokitze-irtenbideak etorkizuneko klima-erregimenetarako.
- -02-7-two-stage: Klima-inpaktua minimizatzea akuikulturaren: arintze- eta egokitze-irtenbideak etorkizuneko klima-erregimenetarako.

**HORIZON-CL6-2024- ZEROPOLLUTION-01-, -02.** Poluzioari buruzko atala, Horizon berrikuntza-esparruko 6. klusterrarena (elikadura, bioekonomia, baliabide naturalak eta nekazaritza).

- **HORIZON-CL6-2024- ZEROPOLLUTION -01-**. Azpiatal generikoa (1) eta etapa bikoitzekoa (2, two stage).
  - -01-1. Eskualdeek nitrogeno- eta fosforo-muga ekologiko eta erregional seguruen barruan nola jardun dezaketen erakustea.
  - -01-2. Bigarren mailako lehengaietatik ongarriak berreskuratzeko edo birziklatzeko teknika erabilgarri onenak.
  - -01-3. Elikadura-sistemen ingurumen-inpaktuak.
  - -02-1-two-stage. Hiriguneetako uraren kalitatea modu eraginkorrean monitorizatzeko ikuspegi holistikoak.
  - -02-2-two-stage. Zero kutsadura eta zero hondakin duten biofindegietarako teknologia berritzaileak.

*[“EUROPAKO FUNTSAK GIPUZKOAN” webgunea](#)*